



2013KO EKAINAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko ekainaren hogeita zazpian, iluntzeko zortzi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko maiatzaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia irten egiten da aretotik.

III.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNEA LANEN 6. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-Eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 6. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 6. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA SEI EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMotakoa (70.206,68 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 6. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.



Une honetan Albisu zinegotzia bilkurara itzultzen da.

IV.- KIROL ZERBITZUEN ESLEIPENA.-

Udal osoko Bilkurak 2013ko apirilaren 18an hartutako akordio bidez, Lazkaoko Joxemiel Barandiaran udal kiroldegiko sorospen, kirol-begiraleak eta sarbideen harrera-kontrol zerbitzuen zeharkako kudeaketa ohiko prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Iragarkia 2013ko maiatzaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresa hauek aurkeztu ziren:

- 1.- EGOITEK
- 2.- SASOISPORT
- 3.- EULEN
- 4.- MOYUA (GKT)

Lizitaziora aurkeztutako lau enpresak A kartazaletan aurkeztutako dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu da kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena betetzen dutela, eta laurak onartuak izan dira.

Balio-judizio baten menpeko erizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen zuten B kartazalak 2013ko ekainaren 6an jendaurrean ireki ziren.

B kartazalak jasotzen zuten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuan eman zitzaizen enpresei:

Enpresa	1. KUDEAKETA PROIEKTUA (gehienezko puntuaketa 25)			
	1. Atala (5 puntu)	2. Atala (10 puntu)	3. Atala (10 puntu)	GUZTIRA (25 puntu)
EGOITEK	4	6	8	18
SASOISPORT	2	2	2	6
EULEN	4	5	7	16
GKT	5	9	9	23

2013ko ekainaren 21ean, eguerdiko 12etan, proposamen ekonomikoa zuten C kartazalak jendaurrean irekitzea egin zen. C Kartazalak ireki aurretik B kartazalen balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako ekonomi proposamenei honako puntuaketa jaso zuten:

Enpresa	Proposamen ekonomikoa
EGOITEK	75
SASOISPORT	75
EULEN	75
GKT	75



Eta ondorioz guztizko puntuaketa honela gelditu da:

Enpresa	Kudeaketa proiektua	Proposamen ekonomikoa	GUZTIRAKO PUNTUAKETA
EGOITEK	18	75	93
SASOISPORT	6	75	81
EULEN	16	75	91
GKT	23	75	98

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, Goierriko Kirol Teknikoak enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Guzti honen aurrean, eta lehen esandako guztiaz gain kirol batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Esleipena Goierriko Kirol Teknikoak enpresaren alde egitea erabakitzen du, honek aurrez dagokion fidantza jarri eta baldintza pleguetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko duelarik, aurretik aurkeztuta ez badauka behintzat.
- 2.- Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraztea, eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

V.- TXINGUDI GIPUZKOAKO HONDAKINEN PARTZUERGOEN SARTZEAREN ALDEKO MOZIOA.-

Lazkaoko EAJ-PNV eta PSEk aurkeztutako mozioak honela dio:

“Txingudi Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan sartzaren aldeko mozioa

Hondakinen kudeaketa gipuzkoarrantzat arazo larria bihurtu da. Egun, indarrean dagoen Gipuzkoako Hiri-Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak honako helburua du: Hiri-hondakinen kudeaketan herritarrei kalitatezko zerbitzua ematea eta, horretarako, kostua Gipuzkoa osoan antzekoa izango da eta ingurumena babestu beharko du, betiere, araudiari eta garapen jasangarriaren irizpideei jarraituta. Gipuzkoan, Hiri-Hondakinen Kudeaketarako Planaren barruan, zortzi mankomunitate daude: Sasieta, Urola Erdia, Urola Kosta, Deba-goiena, Debarrena, Tolosaldea, San Marcos eta Txingudi. Mankomunitate horiek eta udalek hiri-hondakinen kudeaketa bere gain hartzen dute.

Jasotako zaborrei tratamendu egokia eman ahal izateko, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa sortu zen. Partzuergo hau, Gipuzkoako zazpi mankomunitatek (denak Txingudi izan ezik) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute. Dena den, erakunde hau gipuzkoar guztiei zerbitzua emateko asmoarekin jaio zen eta honetaz gain, Gipuzkoako alderdi politikoek behin eta berriz adierazi dute zaborren tratamenduaren arloan, Partzuergoaren asanblada foro egokia dela gipuzkoar guztiok eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko.

Dena dela, gaur egun, Txingudiko mankomunitateak oraindik ezin du Partzuergoaren kide izan eta asanbladan parte hartu, beste mankomunitate guztiekin batera.



Egoera hau, borondate politikoarekin erraz konpondu daiteke. Aitzitik, borondate politiko hau ez adieraztea, apartheid politikoaren aldeko ekintza bezala ulertu beharko litzateke.

Beraz, eta honen guztiaren ondorioz, LAZKAOko Udal Batzarrak, honakoa onartzen du:

- 1.- LAZKAOko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan dituen ordezkariari eskatzen die, Txingudiko mankomunitateak Partzuergoan sartu ahal izateko hartu behar diren akordioak onartu ditzatela.
- 2.- LAZKAOko Udalak bere aldeko bozka ematen du Txingudi Mankomunitateak lurraldeko beste mankomunitate guztiek bezalaxe parte hartu dezan Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan bere betebeharrak eta eskubide guztiak.

Alkateak (Bildu) esaten du mozio hau aurkeztearen arrazoia titularrak bilatzearen estrategi baten barruan kokatzen dutela eta azken finean gaur egun egiten ari den kudeaketari oztopoak jartzea besterik ez direla egiten ari krispazioa sortuz.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du apartheid-a dagoela organismo bat kanpoan dagoen bitartean eta krispazioa aipatzen dutela baina datuak hor daudela.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du mozioaren gaia Txingudi Partzuergoan sartzea dela eta ez zaiola garbi gelditu zein den Bilduren erantzuna.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du eztabaida zabor bilketaren kudeaketaren inguruan eman dela baina mozioaren gaia beste bat dela, hau da, Txingudi Mankomunitatea Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan sartzearena.

Alkateak esaten du ez datozela bat hemen esan direnekin eta mozioaren aurka bozkatuko dutela eskari hau estrategi politiko bat besterik ez delako eta gai honen eztabaida mahaia ez delako hau.

Gaiaz zabal eztabaidatu ondoren bozketan jartzen da eta, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE) eta aurkako 6 botuz (Bildu) eta alkateak bere kalitatezko botua erabiliz, mozioa atzera botatzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du orain dela 15 egun inguru datu batzuei eskatu zituela Sasieta eta oraindik ez zaiola erantzun eta berriro egiten duela eskari hori eta jakin nahiko lukeela noiz erantzun behar zaion.

Alkateak erantzuten dio hori Sasieta Mankomunitateak eman beharreko datuak direla, eta Sasieta lanez lepo dabilela, eta ahal duen neurrian emango dituela eskatutako datuak.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du lan kargarena ulertzen duela baina erantzuteko epe bat ematea egokia litzakela iruditzen zaiola.



Alkateak erantzuten dio esanez lanak mila daudela eta bitartekoak direnak direla eta lehentasunak daudela.

Serna zinegotziak (PSE) eskolta eramatetik utzi duela adierazten du.

Alkateak esaten du pozten dela hori entzuteaz.

Estensoro zinegotziak esaten du pozten direla baita ere. Eta gaineratzen du aprobetxatu nahi duela berriro ere eskatzeko gai hauei buruz elkarren arteko elkarrizketak eduki beharko lituzketela.

Alkateak erantzuten dio esanez ez dela gogo faltagatik baina denbora falta zaiela denera iristeko.

Jendartetik Txingudiren mozioaren inguruko galdera bat egiten da.

Eta honen inguruan hainbat interbentzio egiten dira zinegotzien aldetik.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatziak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

